



EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2020-2021 ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko beste goi-mailako ikasketa batzuk egiteko beka ebazten dituena.

2020ko uztailaren 28ko Aginduaren bidez (2020ko abuztuaren 24ko EHAA), 2020-2021 ikasturterako unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko beste goi-mailako ikasketa batzuk egiteko beken deialdia egin zuen Hezkuntzako sailburuak.

Lehenengo ebazpen-proposamena 2020ko abenduaren 3an argitaratu eta jakinarazi ondoren, beka orokorraren 2. ebazpena argitaratzen da, eta bertan 1. proposamen horri dagozkion alegazio ebatziak baino ez dira sartzen.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozedurako gainerako arauak bete ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehen artikulua.- 2020-2021 ikasturteko unibertsitate-beka orokorraren eta goi-mailako beste ikasketa batzuen deialdian parte hartzen duten eskatzaileei behin betiko 2. ebazpena jakinaraztea. Eranskinean zerrendatzen dira onartutako edo ukatutako eskabideak. Eskatzaileek beren eskaerari buruzko ebazpenaren xehetasunetara jo dezakete beken aplikazioaren bidez.

Bigarren artikulua.- Eranskinean ageri diren eskatzaileei jakinaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioketela Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari. Errekurtsua aurkezteko epea hilabetekoa da, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria